Herri Aldizkaria
otamotz
2004ko apirila 96. alea



Harresi guztien gainetik, Joseba Garmendiarekin solasean

IRITZIZ IRITZI: IDOIA LUZURIAGA
ELKARRIZKETAK: JUAN CARLOS GOMEZ ETA ANTONIO REY
IZERDI PATSETAN: RUBEN GONZALEZ, "MONTXI"

Beasain

colors

Zumarraga





Foto y diseño: Asier Larraza



Jose Mari Iparragirre B.H.I.

Santa Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu
Telefonoa: 943 72 14 13
Faxa: 943 72 14 03
Posta elektronikoa:
jmiparragirre@edunet.es

Erdi mailako heziketa zikloa

Erizain laguntzailea

Aurrematrikula: ekainaren 1etik 9ra

Osasun familia, A-D ereduetan
Titulazioa: Erizaintzako laguntzaile-teknikaria
Iraupena: 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)
Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, zaharren egoitzetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.

ARGAZKI ZAHARRA



La Salle ikastetxean 1988an ateratako argazkia. Goitik behera eta ezkerretik eskubira:
1. ilaran: Begoña Jauregi irakaslea, Asier de la Iglesia, Jon Garmendia, Verónica González, David Campo, Jon Barroso eta Naiara de Arriba.
2. ilaran: Iker Gutiérrez, Iñaki Oiarzabal, Javier Lorenzo, Alberto Merino, Mikel Barrasa, Jon Serrano, Sergio Arnaiz eta Eder Berraondo.
3. Ilaran: Xabier Rico, Alba Antón, Maite del Barrio, Alex Acosta, Mikel Corrales, Pello ..., Alex Jiménez eta Xabier Murugarren. 4. ilaran: Luis Tomás, Iker Cabrera, Rubén Moreiro, Javier Pascual, Raquel Fincias, Ander Goenaga, Verónica Caballero eta Lourdes Martínez.

Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** eta **Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura** eta **Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak** eta **Zumarragako udalak** emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea.
Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73.
Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.
Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.
Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga
Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.
Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
fundazioa
fundación

EDURNE
JANTZIDENDA
Piedad, 18 ☎ 943 72 14 17
ZUMARRAGA

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Bertsopaper lehiaketako saridunak



Apirilaren 2an Urretxu eta Zumarragako Eskolarteko XVII. Bertso-paper Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia izan zen Labeaga Aretoan. A mailan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen artean, lehen saria Amaia Iturriozek irabazi du, bigarren saria Imanol Urteagak eta hirugarren saria Laura Lopezek. Aipamen bereziak, berriz, Leire Mororentzat eta Antzine Aranbururentzat izan dira. B mailan, DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen artean, lehen saria Manex Mantxolarentzat izan da, bigarren saria Joseba Angulorentzat eta hirugarren saria Mikel Agirrezabalentzat. Bestalde, aipatu Amaia Iturriozek Sabino Arana Kultur Elkargoak antolatzen duen bertsopaper lehiaketa ere irabazi duela. Amaiak, Manex Mantxolak eta Edurne Plazaolak Eskolarteko Bertso Txapelketan parte hartuko dute, bat-bateko atalean. Zorte on!

Aho bidezko transmisioa indartuz



Apirilaren 23an Nazioarteko Liburu Eguna ospatu zuten Urretxu eta Zumarragako haurrek. Ekitaldi hau aitzakia hartuta, Gainzuri Ikastetxean indarra galtzen ari den ahozko transmisioan oinarritutako ekitaldia antolatu zuten: ikasleen guraso eta aiton-amona batzuek eta Jose Luis Padron, Andoni Salamero eta Joxan Ormazabal idazleek garai bateko bizimodua eta istorioak azaldu zizkieten ikasleei.

Nafar Aroa ekimena

Lekaio Kultur Elkarteak "Nafar Aroa" ekimena antolatu du hilabete honetarako. Nafarroari buruzko ekimen honen barne, hitzaldiak, erakusketa eta txangoak izango dira, besteak beste.

Maiatzaren 24an "Nafar Aroa" erakusketa irekiko da Juan de Lizarazu aretoan. Ekainaren 6a bitartean, Nafarroari buruzko panel didaktikoak, pertsonaia garrantzitsuei buruzko informazioa, argazkiak... izango dira ikusgai. Maiatzaren 20an, 19:30etan, Gaizka Arangurenek "Nafarroa osoa" izenburua duen hitzaldia eskaini eta Nabarralde ekimena aurkeztuko du Urretxuko Kultur Etxean. Maiatzaren 27an, ordu eta toki berean, Erlantz Urtasunek "Nafarroa Garaia eta euskara" hitzaldia eskainiko du. Ekainaren 1ean, berriz, ordu eta toki berean, diaporama izango da. Kultur Etxeko ekitaldiekin bukatzeko, ekainaren 3an, "Nafarroa egun" izenburupean mahaingurua izango da.

Bukatzeko, maiatza bukaera edo ekaina hasieran asteburu osoko irteera izango da Erriberara. "Nafar Aroa" ekimenetik kanpo, baina Lekaio Kultur ekitaldiak antolaturik, Nafarroara beste bi txango izango dira aurten: uztailaren 18an Baztandarren Biltzarrera eta urriaren 17an Nafarroa Oinezera.

Ferretería BRAVO, S.L.

-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIAK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxa: 943725431 - ZUMARRAGA

Alemaniara bisita



Pello Gonzalez Urretxuko alkatea eta Jabier Otermin Kultura zinegotzia Urretxurekin senidetuta dagoen Alemaniako Schwarzenbruck herrian izan dira apirila bukaeran. Bertan, hainbat ekitalditan parte hartu dute, agintariekin bildu dira eta Schwarzenbruckeko Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen berri izan dute. Horretaz gain, Pello Gonzalezek Urretxuri buruzko hitzaldia eskaini zuen. Hitzaldian parte hartu zuten alemaniarrek Urretxu eta Euskal Herriko egoera politikoaz jakinmin handia erakutsi zuten.

Iberdrolarekin hitzarmena

Anton Arbulu Zumarragako alkateak eta Iberdrolako Jesus Delgadok energia berde salerosketa kontratua sinatu zuten apirilaren 21ean. Zumarragako Udalak energia iturri berriztagarrien bidez sortutako 300.000 kilovatio ordu erosi dizkio Iberdrolari Udal Kiroldegirako eta Jubilatuen Egoitzarako. Anton Arbuluk etorkizunean gainontzeko udal egoitzak ere energia berde bidez hornitzea espero duela adierazi zuen.



Jesus Mari Rodriguezek irabazi du Eire-Bankoa Xake Txapelketa



Jesus Mari Rodriguez zaldibitarrak irabazi du aurtengo Eire-Bankoa Xake Txapelketa, finaleko partida Karlos Erostarbe legazpiarrari irabazita. Hirugarren eta laugarren posturako partida Igor Altolagirre iazko txapeldunak eta Gara egunkarian xakeari buruz idazten duen Mikel Zubiak jokatu zuten. Altolagirrek irabazi zuen partida hau. Lehen ez-federatua, berriz, Juanjo Muñoz urretxuarra izan da. Aurtengo txapelketan 47 lagunek parte hartu dute.


Herri Aldizkaria Otamotz
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!

Yarmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 **URRETXU** ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona
ARTURO
Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

centro óptico
Javier Arratibel
optika
Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak
Soraluze, 10 ZUMARRAGA
✆ 943 72 54 84

GUREA
Iturgintza
Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...
Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU



Idoia Luzuriaga

Aukeratu

Zer gertatzen da zure inguruan etxekoandre edo etxekogizon izan nahi duzula esaten duzunean? Ziurrenik mutila bazara edo neska bazara ezberdin begiratuko zaituzte hori esateagatik. Froga ezazu. Aitortu egun hauetako batean, lagunen artean pote batzuk hartzen ari zaretela, zure bikotekideak nahikoa diru ekarriko balu zuk etxean gelditzeko eragozpenik ez zenukeela izango, etxeko lanak egitea gustatzen zaizulako.

Gizona bazara, aurrerakoia zarela esango dizute, "moderno" horietako bat. Emakumearen boterearen aurrean izutzen ez den horietako bat. Berdintasunaren gaiarekin burua beste aldera bueltatzen ez duen horietako bat. Hain modan omen dauden gizonkote sensible horietako bat, akaso.

Emakumea bazara, zure amaren garaikoa zarela esango dute. Emakumeak berdintasunaren alde daraman borrokan desertore antzeko bat. Independentzia nahi ez duen horietako bat. Atzerapauso bat egiten ari zarela, "arraioa, zer demontre egiten egon gara orain arte zu orain horrelako zerbaitekin hasteko!" Hori esango dizute.

Horra hor ezberdintasun izugarria. Ez dakit gizon bat etxean geratzea zer suposa dezakeen. Emakume naizen aldetik ez diot neure buruari planteatu. Baina egia da, azken aldian, han hemenka hasi direla etxean gelditzea erabakitzen duten emakumeen istorioak entzuten eta batez ere komunikabideetan ikusten. Erabaki, aukeratu, norberak hausnarketa baten ondorioz eta egoera jakin batean hartu dezakeen alternatiba. Horixe izan behar du etxean gelditzea. Eta ez gizarteak 90. hamarkadan aurkeztu digun superemakumearen papera bete ezin izanaren ondorioa. Eta ez dakit aukera horretan noraino garen emakumeak gure erabakiaren jabe edo prototipo eta eredu irreal horren ondorio latza ez ote den.

Hona hemen hamaika ideia nahasi eta ondorio nagusia: Emakumeok bidea egin dugu, baina guk uste baino gutxiago. Zergatik bestela sortzen da aukera hori egiten dugunean halako barne gatazka? Hautaketa baldintzatua delako emakumeontzat. Bizitza pribatua eta profesionala bat egin dugunean eredu oker baten gainean egin dugu. Pasa den hamarkadan aurkeztu ziguten ereduan. Hots, langile ona, ama maitakorra, maitale bikaina, gizaki independientea, pertsona dinamikoa, profesional eraginkorra, lagun prestua, kirolzalea, osasuntsua, dotorea, argia... hitz batean, perfektua. Eta orain, badirudi, XXI mendearen lehen pausotan konturatzen hasi gara hori (zorionez) ez dela existizen. Benetan sekulak ziria sartu digute. Izan ere, ez dago gizakirik hori jasan dezakeenik. Hori dela eta, ia ia berriro hasi behar izan dugu (beno, hasi, hasi, ez... baina ia ia). Eredua zapuztu zaigu, eta orain bakoitzak berea topatu behar du.

Baina topaketa hori askatasunetik egin behar dugu, eta emakumeek oraindik ere ez daukagu askatasunik. Ez gara gure ibilbidearen jabe bakarrak, gure eskubide batzuk bahituta daude oraindik, eta guri bakarrik dagokigu eskubide horiek askatzea. Beraz, ezin gara erlaxatu, bestela partida galtzeko arriskua daukagu.

Lagunen artean, edozein larunbatetan, bueltatxo bat ematen ari garela, gure nahia etxeko andre izatea dela eta inork aurpegi arraroarekin begiratzen ez digunean aurrera egin dugula esan nahiko du. Benetako aukera izango delako eta ez egoera deseroso batek bultzatutako ondorioa. Honekin ez dut esan nahi egun etxean gelditzen den emakumeak horrela egin behar izan duenik, gizartearen perzepzioaz ari naiz. Norberak egin dezala nahi duena bere biziarekin, baina hori, nahi duena.

Mutua General de Seguros
Jose Luis Balenziaga
Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

Apirilaren 23an liburuaren eguna ospatu zen. Irakurtzeko ohiturarik ba al duzue?



Aitor Otegi

Ez dut irakurtzeko batere zaletasunik. Egunkaria bakarrik irakurtzen dut. Libururen bat irakurri dudan guztietan, behartuta izan da. Aisialdian beste gauza batzuk egitea gustatzen zait.



Ana Lizarralde

Asko gustatzen zait irakurtzea. Txikitan ez nuen batere atsegin, ordea. Udan irakurtzen dut batez ere. Orain, intrigazko liburu bat irakurtzen ari naiz: "La falsa pista". Normalean erdaraz irakurtzen dut eta nire gustuko idazlea John Grisham.



Aitor Carro

Irakurtzea ez zait asko gustatzen, baina noizbehinka irakurtzen dut. Irakurri dudan azken liburua Hasier Etxeberriaren "Mugetan" izan da. Gehien gustatu zitzaidan liburua "Historia triste" da.



Joseba Santiago

Ez zait asko gustatzen irakurtzea. Irakurtzen ditudan liburu gehienak klasean agindutakoak dira. Libururen bat irakurtzekotan, nahiago dut euskaraz irakurri, erraztasun handiagoa baitut.

colors
arropa informala
Kalebarren, 12
Zumarraga
943 72 40 57

MODAYANG
-Arropa
-Zapatak
-Osagarriak
Udaberriko moda-modako arropa, preziorik onenean!
Labeaga, 43 behea - Urretxu
☎ 943 53 48 68

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

ARKUPE TABERNA

UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



Lehen eg

Ostegunean bete ziren

Ostegunean bi urte bete ziren polizia espainiarrak Joseba Garmendia Urretxuko zinegotziaren bila etorri eta kartzelan sartu zutenetik. Josebari ETAren finantziazio sarearen partaide izatea eta dirua zuritzea leporatu zioten, baina dagoeneko bi urte daramatza kartzelan epaiketaren zain, epaiketa egingo den edo ez den egingo ere jakin gabe. Ondorengo lerroetan, Josebak kartzelan emandako denbora honetan guztian bizitakoak eta ikasitakoak kontatu dizkigu.

Zer moduz joan dira bi urte hauek?

Une latzak izan dira eta une hunkigarriak ere bai, baina orokorrean egonaldi honi ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatzen ari naiz. Espetxeak alderdi kaltegarri ugari ditu baina bi aipatzekotan monotonia eta norberaren duintasunaren aurkako erasoak aipatuko nituzke. Hauei aurre egiteko izaera moldatzera behartuta gaude eta ondorioz irakasgai baliotsu batzuk eskuratzen ditugu. Bestalde, baliabide urriekin bizitzera behartuta gaudenez, baloreen zerrenda erabat eraldatzen da. Gauza materialak baino, bestelakoek hartzen dute lehentasuna: familia, harremanak, elkartasuna, kolektibitatea, indar eta oreka psikologikoa... Zaila da azaltzea, baina esango nuke kalean izan ditzakegun printzipioak hobe errotzen direla hemen.

Gogorra izan al zen egokitzapena?

Komisaldegian bost egun igaro ondoren, espetxeratzeak lasaitu ederra dakar. Ondoren ingurune berriari egokitzeak denbora eskatzen du. Funtzionarioen zikoizkeria, beldurrari, inpotentziari, espetxearen absurdoari aurre egiten ikasten da, kideen laguntzari esker. Norberaren buruarengan konfiantza irabazten da eta azkenean denboraren erritmo berria kontrolatzea lortzen da. Hasieran sutan jartzen nintzen paketean eus-

gunean bezain tinko

bi urte Joseba Garmendia kartzelara eraman zutela

karazko liburuak edo ikurriña erretenitzen zizkidatenean edota CDrik sartzen uzten ez zidatenean edo leihoan eulientzako sarea izateagatik zigorra ezartzen zidatenean edo miaketan ziega hankaz gora uzten zidatenean. Orain, aldiz, patxadaz eta umore ironikoaz hartzen dut.

Nola ikusten da bertatik kanpoko errealitatea?

Zailtasunez, informazioa urriagoa delako. Hala ere, abantaila batekin. Kalean dagoen zurrunbilotik distantziatuagoak gaudenez perspektiba interesgarriagoaz begiratzen diogu egunerokotasunari, gertaera mamitsuak eta azalekoak hobe desberdinduz. Errealitate politikoaren klabeak nabarmenagoak dira hemendik, agian presarik ez dugulako baloratzeko orduan eta oroimena beti present dugulako.

Zer moduzko baldintzatan zaudete?

Horri erantzuteak Otamotz monografiko bat betetzea suposatuko luke. Laburtzen saiatuko naiz. Espetxean egotea ez da soilik espazio mugatu batean egotea. Espetxea saiatzen da etengabe zure ingurunearekiko harremanak mugatzen, are preso politikoon kasuan. Gure herrietatik ehundaka kilometrotara urruntzen, astero bidal daitezkeen gutunak bira mugatzen, berdin telefono deiekin, bikoteen akreditazioari oztopoak jartzen, bisitatu ahal zaituzten lagunen zerrenda hamarrera mugatzen, komunikazio oro interbenitzen, euskarazko argitarapenen sarbidea oztopatzen. Berdin egiten du espetxe berean gauden preso politikoen arteko harremanekin. Espetxeen arteko sakabanaketari espetxe barruko sakabanaketa gehitu behar zaio. Esaterako, Aranjuezen 26 kide gaude sei modulu ezberdinetan sakabanatuta. Espetxea gero eta gehiago saiatzen da norberaren pribatutasuna kontrolatzen. Esaterako, telebista norbaiti uztea zigortuta dago, berdin ziegako horman poster bat zinzilikatzea. Gero gehitu behar dira elikadura kaskarra, osasun atentzio eskasa -hemen dena pilulen bidez konpontzen dute- eta beste abar luze bat. Dena den, beste espetxe askotan okerrago daudela jakinda kontsolatzen gara.

Zeintzuk dira zuen eguneroko borrokak?

Hiru esparru ezberdinetan sailka ditzakegu. Alde batetik, eguneroko borroka txikiak funtzionarioekin. Gimnasioa edo eskola zabaldu dezaten. Telefono deien bost minutuko bitartea errespetatu dezaten. Ganadu edo ume bezala tratatu ez gaitzaten. Miaketetan biluztea eskatzen digutenean gure intimitate fisikoa errespetatua izateko bata ez gardena ekar diezaguten. Ziegako miaketan present egoteko eskubidea betearazten. Edozein arbitrarietateri aurre egiten. Bigarrenik, gure bizi-baldintzen okertzeari aurre egiteko borrokak daude. Hauek denboran luzatzen dira eta sakrifizio pertsonalak eskatzen dituzte: baraualdiak, ziegan egun osoa igarotzea suposatzen duten txapeoak, desobedientzia ekimenak, etab. Alor honetan kokatzen dira isolamenduko zigor ziegetan zazpi hilabete eman zuten lagunak bertatik ateratzeko borroka, edota ziegetan bakarka egoteko eskubidea defendatzeko borroka. Azkenik, elkartasun ekimenak ditugu. Esaterako, senitartekoek eta lagunek gu bisitatzerakoan izan ohi dituzten istripuak eta heriotzak salatzeko; gaixotasun larriak dituzten presoei -Barandalla, Azkarate kasu- egindako bidegabekeriak salatzeko. Ekimen ia guztiek bere zigorra izan ohi dute. Txapeo egun bakoitzak ordaina du: asteburu bat zigor ziegetan; eta behin bost minutuko enkarteladarengatik bost eguneko isolatze zigorra ezartzera ere iritsi ziren. Esan beharra dago lehen epaitegian zigor hauek leuntzen zirela zigorrak erabat desproportzionatuak baitziren. Orain, aldiz, Auzitegi Nazionaleko epaitegi penitentziari berriarekin jai dugu. Epaile berria Galindori askatasuna ematen saiatu saiatuko da, baina guri ezta egunon ere.

> "Kaleko printzipioak hemen hobe errotzen direla esango nuke"

Zertan ematen duzue eguna? Zer egiteko aukera duzue?

Denbora gehiena irakurtzen eta kirola egiten ematen dugu. Azpiegitura gutxi dugu moduluan ematen dugulako denbora gehiena. Kiroldegira, zinemara eta igerilekura ateratzeko aukera kendu digutenetik. Gainera 11m2-ko ziegetan binaka egoteak erosotasuna murrizten digu. Tailerretan egoteko aukera ere praktikan kendu digute. Hortaz, nahiko mugatuak gaude.

Zer nolako harremana duzue preso sozialekin?

Orokorrean ona. Gutxi batzuekin ditugu arazoak, baina gehienekin harremana errespetuzkoa da. Gure arteko dinamika kolektiboak gainontzeko presoen artean dagoenarekin erabat kontrastatzen du, indibidualismoa eta elkartasun eza oso zabaldua baitago. Ondorioz, erreferentea da euskal preso politikoen kolektiboa, beti prest gaudelako laguntza emateko, bai tramite juridikoak egiterakoan, bai mota guztietako aholkuak ematerakoan. Egia bada preso sozial asko interesa hutsagatik gerturatzen zaizkigula, baita egia da gurekin harreman sendoagoak dituztenak zigortu egiten dituela espetxeak.

Euskal presoekin harremana izaten uzten al dizute?

Gero eta gutxiago. Lehen kiroldegira modulu ezberdinetako kideak atera-



"...Estatuak kultur elkarte batzuen kudeaketan lagundu dugulako eta eraikuntza nazionalean urratsak eman ditugulako espetxeratu gaituela errebidinkatzea desiratuko nuke"

tzen ginen debekatu diguten arte. Orain noizean behin bisita egiterakoan gurutzatzen gara eta hor besarkada baterako eta ezer gutxirako astia dago.

Zer moduz dago "Pifo"? Berarekin egoten al zara?

Zortzi hilabete hauetan ez dugu modulu berean koinziditu. Azkenekoz abokatuak deitu zigunean egin genuen topo eta umore onez ikusi nuen. Egoera larria jasan izan du Martxoaren 11ko sarraskiarekin lotuta presio mediatikoaren ondorioz: Bere moduluan jipoiak eta lintxamendu saiakerak egon ziren, funtzionario batzuk bultzatuta eta babestuta.

Nola ikusten duzu zure etorkizuna? Zertan da zure epaiketa?

Orainaldia ikusten dudan bezala dakusat etorkizuna, lasai eta baikortasunez. Gure auziak justiziarekin, errudun-errugabe binomioarekin ez du zerikusirik. Atxilotuak gaude ondorio politiko batzuk sortzeko. Zehazki, Batasuna eta Udalbiltza operatiboki desaktibatzeko, "jarduera politiko hutsa eramateagatik ere atxilotua izan zaitezke" mezuaz beldurra zabaltzeko. Horregatik daramagu horrenbeste denbora espetxean. Datu ugari daude hori erakusten dutenak. Hasi Garzonen sumario fikziozkoekin, jarraitu duela urte batzuk Auzitegi Nazionaleko 4. Sekzioak salaketa berdinak bertan behera utzi zituela eta amaitu fiskalak gu ez askatzeko jasotzen dituen presioak. Epaiketa noiz izango den? Egotekotan auskalo. 1998an hasitako 18/98 instrukzioarena oraindik ez da egin. Epaiketan zer gerta daiteke? Batek daki. Hipotesi txarrena, Batasuna berdin ETA ekuazioa lege bilakatzea eta ondorioz zigorra zortzi urtetik gora joatea. Hori gertatuz gero, desiratuko nuke Estatuak errebindikatzea kultur elkarte batzuen kudeaketan lagundu dugulako, Zuberoaren garapena bultzatzen saiatu garelako eta eraikuntza nazionalean urratsak eman ditugulako espetxeratu gaituela. Agian gehiegizko zintzotasuna eskatzea litzateke.

Nola baloratuko zenuke Urretxuko Udalak bi urte hauetan zurekin izan duen jarrera?

Atzera begiratu baino nahiago aurrera egin. Badirudi ekimen batzuk martxan jartzeko borondatea dagoela. Nire ustez bada garaia espetxearen inguruan dagoen drama osoa ezagutzen eta azalarazten hasteko. Horrek ez du eskatzen proiektu politiko batekin ados egotea. Giza eskubideen eremuan zeregiteko ugari dago. Nazio Batuen Erakundetik dispertsioa salatzen ari bada, zeri itxaron? Komunikazioan egon daitezken zurruntasunak gainditzen laguntzeko prest gaude.

Eta herritarren erantzuna?

Zer esan? Bikaina, beroa, xamurra. Adibide bat. Igande goiz batean patioan geunden eta oihuak eta txalaparta hotsa entzun genuen. Txalaparta! Emozionatuta geunden ez genuelako espero. Piforen urtebetetzea zen eta bere lagun batzuek mila kilometro egin zuten espetxea inguratzen duten bost harresien aurrean ordu erdiz paratzeko. Ez genituen ikusi, ez genituen ondo entzun, baina sentitu genituen, bai horixe!. Piforentzat gain, guztiontzat izan zen oparia.

Nola ikusten duzu herria bi urte hauen ondoren?


Bi gaiekin batik bat nago kezkatuta. Lehenik, euskara biziberritze plana. Erronkak eskatzen dituen esfortzua, egitasmoak eta baliabideak inbertitzen ari ote den zalantza dut, gazteen arloan batez ere. Udaletik suspertze lana egin daiteke, baina beti ere gizarte eragileen, koadrilen, gazte asanbladaren protagonismoa eta iniziatiba mugatu gabe. Bigarren kezka, Urretxuren morfologia eta oreka urbanistikoa erabat aldatuko lukeen etxebizitzak eraikitzeko plan erraldoia, alkatetzatik planteatzen dena. Herriaren beharrei baino eraikitzaile eta inmobiliariei begira gehiago dagoela uste dut.

Eta Euskal Herria?

Erabaki une garrantzitsu baten aurrean dagoela. Eskura dugu gure etorkizunaren jabe izatea, gobernu zentralistetatik datozkigun erasoak geldiaraztea eta gatazka politikoa gainditzea. Honek heldutasuna eskatzen du. Eta zoritxarrez ezker abertzaletik luzatzen ari diren proposamen ireki, malgu eta pluralisten aurrean erretorikan oinarrituriko aitzakia inmobilista eta alderdikeria gehiegi sumatzen dut.

Miren Josu Aranburu: "Kartzelako harremanen sakontasuna ez dut beste inon aurkituko"

Joseba Garmendiari elkarrizketa prestatzen ari ginela, Entzutegi Nazionalak Udalbiltzaren aurkako operazioan atxilotutako Miren Josu Aranburu urretxuarra baldintzapeko askatasunean utzi zuen. Miren Josu, Herribide plataformako zerrenda burua, iazko udal hauteskundeak baino bi egun lehenago gartzelaratu zuten. Gartzelan bizitako esperientziari eta etorkizunari buruz hitz egiten izan gara berarekin.



Kartzelan igaro dituzun hamaika hilabeteen zer balorazio egiten duzu?

Oso zaila da kartzela zer den esplikatzea, bizi egin behar da. Han burutik pasatzen zaizkizunak, bizipenak, emozioak... ez dira beste inon ematen. Momentu onak onenak dira eta gogorrak gogorrenak. Egindako harremanen sakontasuna izango duen harremanik beste inon ez dut aurkituko. Tentsioa ere etengabea da, eskubiderik gabeko esparrua baita. Pertsona bezala aldatu egin naizela, onerako espero dut, uste dut. Hainbat balio eskuratu ditut.

Lehen egunak oso gogorrak izango ziren...

Sartu eta bi astera edo konturatu nintzen zein zen nire egoera. Ametsgaizto luze baten modukoa zen eta etxean esnatzea espero nuen. Orain, berriz, alderantziz gertatzen zait. Han jasotako elkartasunak, berotasunak eta sentipenak konpartitzeak lagundu dit aurrera egiten.

Nortzuk izan dira zure ziegakideak?

Iratxe Yañezekin, Naiara Mallabiarekin, Maite Diaz de Herediarekin eta Usue Olaiarekin izan naiz. Maiterekin hiru egun soilik izan nintzen, baina oso polita izan zen berarekin egotea; haurdun baitzegoen. Hori kartzelan bizitzea oso berezia da. Kalera irten aurreko boladako nire nahirik handiena Soto del Realetik irtetea zen. Soton egoera asko gogortu da eta, gainera, oso kartzela estresantea da. Atxilotutako guztiak, epaiketetara doazenak... bertara joaten dira eta mugimendu handiko kartzela da.

Zertan aritu zara urtebete honetan?

Kartzelan ezin duzu goizero zeure burua paretaren kontra jo. Hori dela eta, neure buruari disziplina ezartzea erabaki nuen. UNEDen matrikulatu nintzen, antropologian, eta eguna ikasten, idazten zidatenei erantzuten, kirola egiten... ematen nuen. Zeure buruari gogor egin gabe kartzelak jan egiten zaitu.

Hori onartzea mingarria bada ere, kartzelak asko irakatsiko du...

Norberaren buruarentzat ariketa garrantzitsua da. Neure buruaz asko ikasi dut: neure burua kontrolatzen, momentu txarrei aurre egiten...

Kartzelan bizitakoak ez dira sekula ahaztuko...

Edozein egoera txar ahaztu baino gainditu egin behar da eta horrekin bizitzen jakin behar da. Hori, ahaztea baino askoz ere ariketa zailagoa da, burua askotan kartzelara bueltatzen baita.

Zer sentitzen da kartzelatik irtetean?

Sentsazio gazi-gozoa da. Gozoa askatasuna berreskuratu duzulako, baina gazia barruan urtebete zurekin den-dena konpartitu duen jendea uzten duzulako. Askatasuna berreskuratzean, lehenago baliorik ematen ez zenien momentuez ere gozatzen duzu. Askatasuna ukatzen dizutenean, familiakoekin, bikotekideakin, lagunekin... sentipenak konpartitzeko aukera ukatzen dizute batez ere.

Zer nolakoak izan dira etxean eman dituzun lehen egunak?

Gurasoek eta bikotekideak ez zidaten adierazi nahi, ezta nik beraiei ere, zenbat sufritzen ari ziren. Orain konturatzen naiz zenbat sufritu duten. Gordea genuen guztia azaltzeko aukera izan dugu, espontaneoki atera da.

Ongietorri ekitaldian gauza asko pasako zitzaizkizun burutik...

Urduri jarri nintzen, batez ere Joseba Garmendiaren eskutiza irakurri zutenean. Esan behar nituen guztiak berak esan zituela uste dut. Josebarekin egoteko gogo handia dut. Lehen elkar ondo ulertzen bagenuen, orain hobeto. Lehengoan berarekin telefonoz hitz egin nuen eta biok elkar hobe ulertzen genuela eta hori beste inork ez duela ulertzen sentitu genuen.

Nola ikusten duzu herria?

Espainiar gobernuaren aldaketarekin jendeari ilusio pixka bat piztu zaiola ikusten dut, baina ez dakit oso logikoa den. Niretzat aldaketa honek ez du eraginik Euskal Herrian. Asko dago ikusteke, baina Euskal Herriaren kontrako errepresio politikak berdin jarraitzen du. Egun hauetan ondo ikusi da, "Tente"-ren eta, batez ere, Marianen atxiloketarekin. Marianen atxiloketak ikaragarri hunkitu nau.

Zer asmo dituzu?

Bizitza normala egin nahi dut: lana bilatu, ikasketekin jarraitu... Kalean dauden arazoak kartzelan ñoñokeriak iruditzen zaizkizu eta horretaz baliatu nahi dut ez agobiatzeko.

Besterik esan nahi baduzu...

Ematen didazuen aukera hilabete hauetan jendeak eskainitako gertutasuna eskertzeko aprobetxatu nahi nuke. Eskutitzak, familiari adierazitako elkartasun mezuak... ikaragarri eskertzen dira kartzelan. Ez diot inor-inori desio bi egun ere han ematea.

Irrifarre baten indarra



Familian buruko gaitzen bat duen norbait izatea gogorra bada, are gogorragoa da gaixotasun edo sindrome hori populazioaren ehuneko oso txiki batek badu eta medikuek eurek ere gaixotasunari buruz ezer gutxi badakite. Egoera hau nola bizi den jakiteko, Juan Carlos Gomez zumarratarrarekin hitz egiten izan gara. Juan Carlosen eta Lourdes San Martinen semeak, Alainek, X Hauskorra Sindromea du. Juan Carlosek, bere familiaren eta antzerako egoera bizi duten eguneroko bizitza errazteko asmoz, Euskal Herriko X Gaitz Hauskorraren Elkartea sortu zuen duela urte batzuk. Ordutik, Juan Carlos elkarte honetako presidentea da.

Juan Carlos Gomezek azaldu digunez, X hauskorra sindromea atzerapen mental hereditarioen kausa nagusia da eta, gehienetan, gizonezkoek pairatzen dute. "Gizonezkook XY kromosomak ditugu eta emakumezkoek XX kromosomak. X hautsi bat izanez gero, emakumeek beste X-aren laguntzaz sortzen dute hautsiak sortu ezin duen eta burmuinera doan proteina. Gizonezkook, X bakarra dugunez, ezin dugu proteina hori sortu. Hala, normalean, emakumezkoak gaitzaren eramaileak dira eta gizonezkoak kaltetuak. Duela urte batzuk arte emakumezkoak ezin zirela kaltetuak izan uste zen, baina ez da hala".

Orainarteko datuen arabera, Euskal Herrian 84 familiak dute gaitz hau eta 200 pertsona inguru dira atzerapena pairatzen dutenak. Familia hauetako bat Lourdesena da eta kaltetuetako bat Juan Carlos eta Lourdesen semea: Alain. Alainek 9 urte ditu eta bera jaio eta hilabete gutxira jakin zuten Lourdes eta Juan Carlosek gaitz hori zuela. "Egun gurekin lan egiten duen genetistak, ikerketa bat egiten ari zela, zentro batean dagoen nire koinatak X haus-

korra sindromea zuela ikusi zuen. Hori dela eta, emaztearen familiari jakinarazi eta amaginarrebari eta emazteari frogak egin zizkieten. Orduarako nire emazteak 6 hilabeteko haurdunaldia zuen eta frogak eramailea zela esan zuen. Haurrek aitaren geneak hartzea gerta daiteke, baina oso arraroa da. Jaio eta hilabete batzuetara mutikoari froga egin genion eta X hauskorraren sindromea zuela atera zen".

Populazioaren portzentaia oso txiki batek pairatzen duen gaitza izanik, oso mediku gutxi dira gaitz honetan adituak eta gaixoen bizimodua erraztera bideratutako ikerketak ez daude oso garatuak. Horrek bultzatu zuen batez ere Juan Carlos elkartea sortzera. "Semeak X ahula sindromea zuela esan zigutenean, gaixotasuna zer den azaltzen zuten bi orri eman zizkiguten eta listo. Medikuari orri horietan jartzen zuena azaltzeko eskatu nion eta berak ez zekiela ezer esan zidan. Hala, internetera jo genuen gaixotasunaren berri izateko eta beste familia batzuekin harremanetan jartzeko. Gaixotasuna ezagutzera emateko, informazioa lortzeko, gaitzera iritsi berri diren gurasoei laguntzeko... elkartea sortzea erabaki genuen. Horretarako, Basurtuko ospitaleko mediku batek X ahula sindromea diagnostikatuta zuten familia guztiei gutunak bidali zizkien".

Elkartearen zeregin nagusietako bat euren semeak gaitza duela jakin berri duten gurasoei laguntzea da. Egoerari aurre egitea gogorra da, gaitzaren agerpena familia osoari jakinarazi behar baitzaio gainera. "Prebentzio lana egin behar da, zeren kasuren bat ateratzen denean familia horren zuhaitz genealogiko guztiak sindromea duela dakizu. Famili horietako kideei haurra izan nahi dutenean zer arrisku duten azaldu behar zaie. Izan ere, familia horietan, mutikoa izanez gero, gaitzarekin ateratzeko aukerak ia %100ekoak dira". Hori dela eta, X hauskorra sindromea duten familiek haurdunaldi preinplantazionala egiten dute umearen sexua aukeratu ahal izateko.

Juan Carlosek familia asko lagundu behar izan ditu gaitzaren berri izan ondorengo lehen hilabete gogorretan. "Batzuek ez dute onartu nahi familian halako kasurik dutenik eta ezkutatu egiten dute. Kaltetuarentzat eta familiarentzat onena egoerari aurre egitea eta elkarteko kide egitea da. Izan ere, informazioa eskaintzen dugu, aldizkaria ateratzen dugu, genetista eta psikologo zerbitzuak eskaintzen ditugu, dagoeneko gaitzari buruzko hiru jardunaldi antolatu ditugu, elkartea onura publikotzat hartua izatea lortu dugu... Bestalde, elkarteen artean harreman handia dugu. Informazioa eta esperientziak elkartrukatzea oso garrantzitsua da, X hautsi sindromea nahiko ezezaguna baita".

Esperientzien elkartrukaketa funtsezkoa da X hauskorra sindromea duten haurrentzat onena topatzeko, gaixotasun honen inguruko ikerketak behar baino urriagoak baitira Juan Carlos Gomezen ustez. "Down sindromea dutenen eta euren familien esperientziaz baliatzen saiatzen ari gara. Haiek ere garai batean ez zuten gizartearen onarpena eta ezkutuan izaten zituzten. Gizartearen onespena lortzea nahi dugu, tailerretan lan egitea... Bartzelonan, adibidez, lorontzietan landareak sartzen jarri dituzte nola erreakzionatzen duten ikusteko. Elkarteak eta gurasoak uneoro frogak egiten ari gara zertara moldatzen diren jakiteko eta gure esperientzien berri ematen dugu interneten".

X hauskorra atzerapen mental hereditarioaren kausa nagusia da

Urteen poderioz, Juan Carlosek euren bizitza errazteko hainbat trikimailu topatu ditu. "Nire semea lasaitzeko, adibidez, patata frijituak ematearekin nahikoa dudala ikusi dut. Aurreko batean sei mutiko aquarium-era eraman nituen eta beldurrak jota sartu nintzen, haserretzen edo urduri jartzen direnean ez baitago zer eginik. Haurrarekin noanean uneoro zer egin behar dugun azaldu behar diot, egoera aldaketek oso urduri jartzen baitute. Nire mutikoak oraindik ez du hitz egiten eta ez daki irakurtzen, baina berari begiratzearekin batera

Montajes e Instalaciones Electricas
HERCE
Elektrizitate, M. E.
Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa
Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617
20700 URRETXU

TABERNA
Iburreta
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Labeaga 30 ☎943 72 27 80
URRETXU

PAKO VIERBUCHER
Ezkontza erreportajeak
Argazki estudio eta artxiboa
Prozesu digitalak
Bideo profesionala
Argazkigintza materiala
Legazpi, 5 ☎ 72 11 55 Zumarraga
Labeaga, 43 ☎ 72 16 81 Urretxu

MAPFRE
Aseguru etxea
S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

berehala dakigu zer nahi duen. Bestalde, memoria fotografikoa dutenez, argazkiz jositako koaderno bat eramaten dugu eta nahi duena argazkien bidez eskatzera behartzen dugu. Eskola eta gurasoen artean, etengabe metodoak frogatzen ditugu".

Baina uneoro esperimentatzen aritzea oso nekagarria da guraso eta hezitzaileentzat eta Juan Carlosi Gizarte Segurantzak gaitz honi arreta handiagoa jartzea gustatuko litzaioke. "Luxuzko Gizarte Segurantza izanik, X hauskorra diagnostikatzen duen ospitale bakarra dugu eta, gainera, diagnostiko hau egiteari utzi behar diote. Hemendik gutxira Madril edo Bartzelonara joan beharko dugu, sindrome minorizatuen diagnostikoak egitea ez dela errentagarria baitiote. Zer da garestiagoa analisia egitea ala gaitz hau duen pertsona bat bizitza osoan mantentzea? Bestalde, mediku eta pediatra askok ez dakite ezer sindromeaz eta pittin bat bustitzea eskatuko nieke. Ez daitezela erosotu, ni neure lanean ez banaiz egunean jartzen kalera noa".

Juan Carlosek oso argi utzi nahi du bolondres elkarte bat aurrera ateratzea lan gogorra dela. "Elkarte bat aurrera ateratzeak lan handia ematen du eta gurasook ez dugu behar adina denbora. Batzuek gurasook elkarteak poteak hartzera joateko sortzen ditugula uste dute, baina alde batetik bestera ibili behar dugu, jardunaldietara joan, medikuei lagundu gaixotasunari buruzko informazioa lortzen, aldizkaria atera, informazioa elkartrukatu, instituzioak oso problema gogorra dugula mentalizatu... Dena den, jendeak eskainitako laguntza eskertzen dizunean, elkarteko haur guztiak elkarrekin gustura ikusten dituzunean... urte guztian lanean aritu garela ahazten dugu. Familia guztiak elkarrekin egotea, ulertzen zaituen jendearekin egotea... oso garrantzitsua da".

> "X hauskorra diagnostikatzen duen ospitale bakarra dugu"

Azkenaldian, gainera, Juan Carlos Gomezek eta Legazpi, Urretxu eta Zumarragako bolondres elkarteetan lan egiten duten gainontzekoek pozteko arrazoiak dituzte. Izan ere, bolondres elkarteen koordinadora sortzera doaz. "Koordinadoraren sorrera funtsezkoa izango da. Gure eskubideak defendatzeko, subentzioak eskuratzeko, informazioa lortzeko... oso arma garrantzitsua izango da. Bakarrik lan eginez askoz ere zailagoa da, esaterako, subentzio guztien berri izatea. Horretaz gain, jendeak elkar ezagutzeko, elkarri babesa emateko... balioko du. Askotan jendeak gure haurra oso arraro begiratzen du eta koordinadorakoen artean askoz ere lasaiago sentitzen gara".

Bi zapatila eskuetan zoriontsu den mutikoa



Juan Carlos eta Lourdesentzat oso gogorrak izan ziren Alainen gaitzaren berri izan ondorengo hilabeteak eta eguneroko bizitza ere ez da batere erraza beraientzat. "Argia izango naiz, kontu honetaz zenbat eta gehiago jakin, orduan eta okerrago eramaten duzu. Gainera, gure mutikoa oso kaltetua dago eta armairu baten modukoa da: 9 urte ditu eta 60 kilo pisatzen ditu, etxe barruan ito egiten da...".

Dena den, denboraren poderioz eta gogor lan egin ostean, aurrerapausu nabarmenak eman dituzte. Alain eskolara joaten da eta bai bera eta bai bere gurasoak oso gustura daude. "Gainontzeko umeekin oso ondo eramaten da. Kalean oharkabean ibiltzea atsegin dut, baina ezinezkoa egiten zait. Izan ere, denek Alain agurtzen dute. Ume hauek oso maitakorrak dira".

Heziketa bereziko irakasleekin ere ere oso gustura ageri dira Alain eta bere gurasoak. "Duela bi urte berarekin egon zen Ordiziako neska batek haurrak berak nahi zuen guztia egitea lortzen zuen, guk lortzen duguna baino askoz ere gehiago. Medikuarengana joatea eta haurra baskulan jartzea, esaterako, guri izugarri kostatzen zaigu eta berak berehala lortu zuen. Horrez gain, oraindik oso baliagarria zaigun aurkikuntza egin zuen: haurra kaletik lasai joatea nahi badugu, bi makil ematearekin nahikoa dugu".

Dena den, Juan Carlos ez da horren gustura ageri Hezkuntza Sailaren politikarekin. "Hezkuntza Sailak urtero irakaslea aldatzen dio. Hori dela eta, haurrak urtero hiru hilabete edo galtzen ditu, denbora hori kostatzen baitzaio gutxi gorabehera irakasle berriari egokitzea. Gainera, heldu berria den irakasleak ere denbora behar du haurra ondo ezagutzeko. Orain gure semearekin dagoen hezitzaileak Ordiziako neska hark lortu zuen erdia ere ez du lortu oraindik".



Antonio Rey: "Organojole gutxi gaudenez, estimatuagoak gara"

Urretxu eta Zumarragak musika munduko maisu ugari eman dituzte historian zehar. Egungo musikarien artean ere, asko dira dagoeneko lan azpimarragarria egin dutenak. Hauen artean maisurik bada, hori Antonio Rey da. Antoniok 40 urte daramatza Zumarragako parrokiako organua jotzen eta bertako abesbatza zuzentzen. Horretaz gain, Zumardi elkarteko abesbatza zuzendu zuen eta Goiargi abesbatzako lehen zuzendaria izan zen. Bere etxean izandako solasaldian musikarako duen grinaren lekuko izan ginen.

Zure lanik oparoena Urretxu-Zumarragan egin duzun arren, ez zinen bertan jaio...

1924ko otsailaren 29an Bilbon jaio nintzen, 80 urte ditut beraz. Jaio eta bi urtera Urretxura ekarri ninduten bizitzera eta nire anaia-arrebak hemen jaio ziren. Hori dela eta, urretxuartzat dut neure burua. Garai hartan, etxetik irteten ziren emakumeak zerbitzatzera irteten ziren eta nire ama Bilboko La Eibarresa hotelera joan zen. Bertan ezagutu zuen nire aita zena. Aita sukaldaria zen eta Madrilera joan zen lanera. Ama, berriz, Urretxura etorri zen. Izan ere, hemengoa zen eta familia guztia hemen zuen.

Nola gogoratzen duzu garai hartako Urretxu-Zumarraga?

Zumarragako fraileetara joaten nintzen eskolara, Urretxun nazionalak soilik baitzeuden. Urretxuar gehienok La Sallera joaten ginen ikastera. Iparragirre plazan jolasten genuen eta Zumarragakoekin sekulako liskarrak izaten genituen. Harrika aritzen ginen: beraiek Ipintzatik eta gu Urolako geltokitik. Behin trenbidea ia harririk gabe utzi genuen. Bi herrien arteko lehia handia zegoen, egun baino askoz ere handiagoa.

Oraindik ere badira urretxuar eta zumarratar peto-petoak, baina ez dira elkarri harriak botatzen aritzen!

Nolatan hasi zinen musika munduan?

6-7 urterekin solfeoa ikasten hasi nintzen, Urretxuko parrokiako abesbatzako tiplea ere izan nintzen... Nire etxean musika giroa bizi zen, osaba guztiek Urretxuko bandan jotzen baitzuten. Solfeoa ikasten gogo onez hasi ez banintzen ere, musika nire bizitzako ardatza izan da.



Zeintzuk izan ziren zure maisuak musika munduan?

Lehen maisua Toribio Navarro izan zen, Urretxuko organojolea eta bandako zuzendaria zena. Maisu handia zen. Gasteizen Julio Valdés izan zen nire irakaslea. Comillasera zuzenbidea ikastera joan nintzen, baina norbaitek hango zuzendariari, Aita Prietori, nire berri eman zion eta zuzendaritza erakutsi zidan. Hala, hango apaizgaien abesbatza zuzendu nuen. 100 kidetik gorako abesbatza zen.

Herriko garai bateko musikari handiak ere ezagutuko zenituen...

Aipatu dudan Toribio Navarro, Belaustegi, Severo Paternain, osaba Facundo... Zumarragako musikariekin harreman handia ez nuen, garai hartan bi herrikoen artean harreman txikiagoa baitzegoen. Beranduago, Jesus González Bastidarekin adiskidetasun handia izan dut. Zumarragako musikari handiak, Busca Sagastizabal esaterako, ez nituen ezagutu.

Zer ikasketa egin zenituen?

12 urterekin seminariora joan nintzen. Gerra hasi berria zenez, seminarioko lehen urtea etxean egin nuen. Nire osaba bat teologiako laugarren urtea egiten ari zen eta hark irakatsi zidan. Seminarioko bigarren urtea Donostian egin nuen, hirugarrena Bergaran eta gero Gasteizera joan nintzen. Gasteiztik Comillasera joan nintzen zuzenbide kanoniko ikasketak egitera.

> "Emakumeek ezin zuten parrokia abesbatzetan kantatu eta eztabaida gogorrak izan nituen"

Ikasketak bukatu ondoren, 1950ean, Ordiziara destinatu ninduten. Bertan 13 urte eman nituen: parrokiako organista izan nintzen eta Santa Ana abesbatza sortu nuen. 1963an, Don Domingoren ekimenez, Zumarragara etorri nintzen. Egun geriatrikoa deneko kaperau lanetan eta organojole lanetan hasi nintzen eta gero apaiz lagunkide ere izan nintzen.

Zu urretxuar peto-petoa izanik, ondo hartu al zuten herrian Zumarragako organista izatea?

Seminario garaian, Gasteiza joateko, Zumarraga ez zapaltzeagatik, Legazpiko geltokira trena hartzera oinez joaten nintzela esaten zen. Gezurra dela esan beharra dut. Hori egitea ezinezkoa zen, gainera. Izan ere, garai hartan Gasteiza zihoan tren bakarra ez zen Legazpin gelditzen. Dena den, koadrilako guztiok urretxuar peto-petoak ginen eta Zumarragara lanera joan nintzenean adar jotzeak jasan behar izan nituen. Urretxuko apaizak Zumarragara joatea gaizki ikusia egon da beti, baina denborarekin ahaztu egin da. Egungo Zumarragako parrokoa ere, Luis Mari Segurola, urretxuar peto-petoa da.

Zumarragara heltzean, zer egoera aurkitu zenuen?

Parrokiako abesbatza gizonezkoez bakarrik osatutako abesbatza txikia zen. Emakumeek ezin zuten parrokia abesbatzetan kantatu eta eztabaida gogorrak izan nituen kontu horregatik, bai Ordizian eta bai Zumarragan. Zumardi elkarteko bazkidea ere banintzen eta elkartekook ere abesbatza sortu genuen. Horretaz gain, emakumez soilik osatutako abesbatza ere osatu genuen: Goiargi. Hasiera batean Goiargi 60tik gora emakumez osatutako abesbatza zen. Hiru abesbatza zuzentzea gehiegizkoa zenez, astean 4 entsaio ziren eta nekeak jota medikuarengana joan behar izan nuen, Zumardi eta Goiargi abesbatzak utzi nituen. Orduan, parrokiako abesbatza mistoa osatzeari ekin nion. Abesbatza mistoa askoz ere aberatsagoa da: gizonezkoez eta emakumezkoez osatutako abesbatzentzat partitura gehiago eta hobeak daude.

Abesbatzak zuzentzeaz gain, askori kantuan irakatsiko zenien...

Garai batean ni bakarrik nengoen irakasteko eta oso lan gogorra zen. Egun parrokiako koruan musika dakien jendea dut eta beraiek laguntzen didate.

Abesbatzak zuzentzeaz gain, 40 urte daramatzazu Zumarragako parrokiako organojole lanean...

Abesbatza zuzentzen ari naizenerako beste bi organojole daude, baina bestelakoan ni aritzen naiz. Organojolea, nire ustez, sekula ez da ondo ikusia izan. Esaera zaharrak "De músico, poeta y loco, todos tenemos un poco" dio eta organojolea beti xelebretzat hartua izan da. Gainera, organojoleari sekula ez zaio ondo ordaindu. Hori dela eta, organojolea, organojoleaz gain, beti bandako zuzendaria edo abesbatzako zuzendaria ere izan da. Egun organojole gutxi gaude eta estimatuagoak gara. Donostian organu katedra dago, baina gazteek kontzertista izan nahi dute, ez dute

parrokietan jo nahi.

Hainbeste urte lanean eman eta gero, pasadizu bereziren bat oroitzen al duzu?

Zumarragan 20 urte eman genituen parrokiako organoa jo gabe, ez baitzebilen. Milioi erdi pezeta kosta zen organo elektronikoa ekarri behar izan genuen. Parrokiako berrikuntza lanak egin zirenean konpondu genuen organoa. Berrikuntza egin aurretik bi koru zeuden eta organoa zegoeneko korua bota egin zen. Organoa desmontatu egin behar izan zen eta, hori aprobetxatuz, berritu egin genuen. Milioi eta erdi kosta zen berriztatze lan ona egin zen eta elektronikoa Nafarroan saldu genuen. Zumarragako parrokiako organoa ez da txarra. XIX. mende bukaerakoa da, baina aldakuntzak izan ditu eta bere izaera galdu du. Aurreko parrokoak, Don Javierrek, organo berria erosi eta parrokian dagoena Antiora igo behar zela zioen, baina ez dago beste organo bat erosteko dirurik. Antion, berriz, organo elektroniko ona dago, baina tutuzkoak ez du parekorik...

Urretxu eta Zumarragan kantuzaletasuna bultzatzeko lan handia egin duzu, baina, arantza txikiren bat ba al duzu?

Tipleekin porrot egin dut beti. Ez zegoen parrokiako abesbatzan kantatu nahi zuen tiplerik eta abesbatza mistoa sortzeari ekin nion. Parrokiako abesbatzan ez dugu berebiziko mailarik, baina oso gustura nago. Elizako kantuak soilik kantatzen ditugu eta Goiargi gu baino gehiago dela onartzen dugu. Konforme gaude eta herria ere konforme dagoela uste dut: Urretxun eta Zumarragan abesbatza ona dago, Goiargi, eta parrokia bakoitzak bere abesbatza du.

Bi herri hauek oso musikazaleak izan dira beti, garai bateko maila mantentzen dela uste al duzu?

Bai, bai. Hiru parrokia abesbatza daude, Goiargi, Zumarragako Musika Banda, Urretxun ere badute musika banda... Ezin da gehiago eskatu, egun jendea entseiuetara joatea asko kostatzen baita. Jendea ilusioz hasten da, baina gizonezkoak batez ere nekatu egiten dira. Parrokiatako abesbatzetan gizonezko asko izan dira beti, baina egun gizonezkoak falta dira; batez ere gazteak. Lehen, baten bat abesbatzan kantatzeko asmoz etortzen zenean, froga batzuk egiten genizkion ahotsa nola zuen jakiteko eta balio zuen edo ez esaten genion. Orain, berriz, datozen guztiak onartzen dira.

> "Zumarragan 20 urte eman genituen parrokiako organoa jo gabe, ez baitzebilen"

Urretxu eta Zumarragako parrokia abesbatzetan ba al da bereziki gustukoa duzun abeslaririk?


Gure abesbatzako Mari Carmen Mendia oso bakarlari ona da. Urretxun, berriz, Don Santiago izan da azken urteotako abeslari onena. Ramon Arbizuk ere ondo abesten du.

Musikaz gain, beste zaletasunik ba al duzu?

Literatura ere atsegin dut. Artikuluak idatzi ditut batez ere: Iparragirreri buruzkoak, Gabonei buruzko besteren bat... Dena den, literatura musikarengatik utzi nuen. Bestalde, musika klasiko bideo-zinten bilduma ere egiten dut. 500 bideo-zinta baino gehiago ditut, tartean opera ia guztiak. Egunean egoten saiatzen naiz. Egun, irudiekin batera datorren musika lortzen saiatzen naiz. DVD gehiago lortu nahi nituzke, baina herritik gutxi irteten naiz eta DVDak lortzeko zailtasunak ditut. Izan ere, musika klasikoko DVD gutxi argitaratzen da. Bideo-zinta bilduma ederra dut, baina bideoa desagertu egingo da. Teknologia berriak atsegin ditut eta sukaldean telebista, bideoa eta DVDa ditut. Dena den, LPa CDa baino nahiago dut. CD asko LPtatik atera dituzte eta galdu egin dute.

Iparragirreri buruzko bilduma ederra ere baduzu...

Iparragirre ere oso gustukoa dut mutikoa nintzenetik. Bere bizitza eta lanari buruz aurkitzen dudan guztia biltzen dut. Iparragirreren kantuekin atera zen lehen liburuko lehen edizioko ale bat dut. Nire altxorrik handiena da. Oskorrikoak etorri zirenean Natxo de Feliperi kopia bat eman nion. Ezezagunak ziren Iparragirreren hiru kanta aurkitu nituen eta Patxi Andionek Iparragirreren kantuekin atera zuen diska batean grabatu zituen. Diska horren ekoizpenean, besteak beste, nire laguntza izan zuen. Diska hori gaizki ikusia izan zen Urretxun, Andionek bere erara kantatu baitzituen Iparragirren kantak.



Nolatan Iparragirrerekiko mirespen hori? Urretxuarra zelako soilik?

Bere bizitza atsegin dut. Buhame handia izan zen eta Urretxuko apaizek etsaitzat zuten. Hori dela eta, bere figura baztertua izan da, baina merezitako onespena lortu du azkenean. Ez zen ez poeta handia izan, ezta musikari handia ere, baina bai oso herrikoia. Ez da bera bezain artista herrikoirik izan. Oso herrikoia dena handitasunetik gertu da.

Eitzako dendari eta tabernariok San Isidro jai zoriontsuak opa dizkizuegu

EITZA KAFETEGIA
Txibiarroetan espezialitatea
☎ 943 72 35 57

itxura
ILEAPAINDEGIA - APAINDEGIA
Busca Sagastizabal, 1 behea - ☎ 943 72 58 19

LARUNBATA 8

16:00etan: Mus txapelketa Korta tabernan.

ASTELEHENA, 10

19:30etan: Gastronomi erakusketa "Arzak" jatetxeko sukalde-buru den Peio Aranburu auzotarraren eskutik Gazte Txokon.

OSTIRALA, 14

18:00etan: Txokolate jana.
Ondoren, buruhandiak eta haur jolasak.
19:00etan: Elorza Anaiak trikitilariek alaitutako poteoa.
21:30etan: Afari herrikoia, trikitilari, bertsolari eta umoristekin. Menua: ontto eta espinaka kremaz beteriko piperrak, biribilkia saltsan patata purearekin, postrea eta kafe osoa.
23:00etan: Rock kontzertua "Black diamond" eta "Spezial Güest" taldeekin.

LARUNBATA, 15 (SAN ISIDRO EGUNA)

11:00etan: Meza nagusia.
12:30etan: XXIV. Toka txapelketa.
Ondoren, jubilatuentzat luntxa Irrika elkartean.
13:00etan: Trikitixak giroturiko kalejira.
Ondoren trikitixa.
16:30etan: XXI. Kross Herrikoia.
17:30etan: "Eitza" pilota txapelketaren finalak.
19:15etan: "Irrintzi" eta "Bastonellos dels Monjos" (Bartzelona) dantza taldeen dantza saioa.
19:30etan: Trikitixak giroturiko kalejira.
23:30etan: "Denis Band" orkestra.

IGANDEA, 16

10:00etan: Goiz eresia Antzinako Ama taldeko txistulariekin eta Zuhaitzaren Soinua taldeko txalapartariekin.
11:00etan: Meza Nagusia.
12:30etan: Kalejira Zumarragako Musika Bandarekin.
13:00etan: Irrintzi Dantza Taldeko haurren saioa.
18:00etan: "Grupo Rociero Albero"-ren emanaldia.
19:00etan: Herri kirol erakustaldia.
19:00etan: "Karmakros" taldearen antzerki saioa.
22:30etan: Jota emanaldia "La Ribera canta" taldearekin.


BORDATXO TABERNA

Korta taberna

ZORIONAK!



Sofia, hori da hori bekoskoa... mototsak eramateaz nazkatuta zaudelako haserretu al zara? Zorionak!



Miren, hori da hori aurpegia duzuna... Bob Marleyren lagunekin izan zarela dirudi! Zorionak!



Unai, nabari da bai ikasturtea bukatzeko hilabete eta erdi besterik ez dela falta... Zorionak!



Leire, zapia buruan eta ibili munduan! Zorionak eta segi orain arte bezain irrifartsu!



Jon, udaberri oso eguzkitsua ez dugun arren, zu dagoeneko gorritu zara... Zorionak eta ondo ibili!



Eneritz, hori da hori txoria jarri dizutena... amak denda oihalik gabe utziko zuen! Zorionak!



Felix, horrenbeste gaztetxo artean zu ere gaztetuko zara! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Ander, kezkatu aurpegia duzu... ekaineko azterketen beldur al zara? Zorionak eta ondo ibili!



Maitane, dagoeneko ezpainak margotzen al dituzu? Sara Montielek baino okerrago bukatuko duzu!




Aitor, hori da hori bihurri aurpegia duzuna... badaezpada ere zuri ez dizugu adarrik joko! Zorionak!



Gurutz, hori da hori txintxo aurpegia duzuna... Zorionak, ondo pasa urtebetetze eguna eta segi horrela.



Maria Dolores, ea hurrengoan irrifarre txiki bat eskaintzen diguzun! Zorionak eta ondo ibili!



Juan, aurtengo udaberria oso txukuna ez den arren, oraindik txamarra hori soinean egotea ere...



Mirene, haurren esplotazioa bada ere, hurrengoan zuk ere pegatinak jarri beharko dituzu!



Aiala ala Alaia al da zure izena? Hori da hori irrifarrea! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Aitor, hori da hori begirada... Sylvester Stallone baino tipo gogorragoa zara gero! Zorionak!



Alberto, zuk ere ez duzu begirada makala, Aitor "Stallone"-rekin haserretu egin al zara?



Amparo, dirudienez zuk ere ez duzu orain-dik neguko arropa kentzeko asmorik... Zorionak!



Bittor, alaba zaharrena aitazuloa duzu nonbait eta lerdea darizula ikusten zaizu! Zorionak!



Ikusten ez den arren, alaba gazteena, berriz, amazuloa da. Zorionak **Eneida!**



Eukene, ea egunen batean horrenbesteko farregurea eragin dizun txistea kontatzen diguzun!



Gema, gustura ageri zara gero... Belenek itsaski bazkarira gonbidatu al zaitu? Zorionak eta ondo ibili!



Joxe Mari, filologia ikasketak hasi beharko dituzu Mariani apur bat laguntzeko! Zorionak!



Mari Carmen, nondik atera dituzu betaurrekoak horiek? Stevie Wonderri erosi al dizkiozu?



Maria Dolores, zu ere eguzkitako betaurrekoekin? Blues Brothers-en bertsio berria grabatzen ari al zarete?



Martin, ziur zure amak ere ez zaituela guk bezainbestetan zoriondu. Zorionak eta ondo ibili!



Miren, mendiko haizeak ilea harrotu dizun arren, gustura ikusten zaitugu. Zorionak eta ondo ibili!



Nerea, 500 euroko biletea galdu al duzu? Biletea topatu ez, baina konkorra aterako zaizu! Zorionak!



Pello, zer demontre egiten duzu mikrofono aurrean? Bertsotan ari al zara? Zorionak eta ondo ibili!



Rafa, etzazu atzera begiratu, zure atzetik ez dator neskarik eta! Zorionak eta ea formaltzen garen!



Ruben Gonzalez:
Goierriren harrobiko harribitxia



Ruben Gonzalezek, "Montxi" bezala ezaguna herrian, 21 urte ditu eta Urretxun dugun areto futboleko jokalaririk onena dela esan daiteke, urrutien iritsi dena bai behintzat. Izan ere, Zilarrezko Mailako Aker-Ibarra taldean jokatzen du. Aurreko asteburuan ligako azken partida jokatu zuten eta sailkapeneko erdiko postuetan geratu dira. Liga amaitu dela aprobetxatuz, gurekin solasaldia izateko eskatu diogu, berari buruz zertxobait gehiago jakiteko asmoz.

Ruben Gonzalez "Montxi" hamahiru urterekin hasi zen areto futbolean. Herriko taldean, Goierri Kirol Elkartean, hain zuzen ere. Lau urte eman zituen bertan: hasiera batean jubenilen taldean, ondoren dibisio autonomikoan eta, azkenik, talde nagusira egin zuen salto. Ordurako, argi zegoen Ruben ez zela edonolako jokalaria; bai bera eta baita kanpoko taldeetako begiraleak ere bere trebetasunaz jabetu baitziren. Hau honela izanik, Ibarrako futbol areto taldeak froga batzuk egiteko eskatu zionean, bere trebezia agertzeko aukera izan zuen. Urretxuarrak maila bikaina erakutsi zuen eta zilarrezko mailan jokatzeko aukera eman zion talde honek. Lau urte daramatza bertan eta honela, bere futbol ibilbidea guztiz sendotu du. Honez gain, Euskadiko selekzioarekin ere nahikoa partida jokatu ditu. Hauetan azkena otsailean izan zen eta "errepikatzeko moduko esperientzia" dela esan digu.

Rubenek, kirol honetan hasi zenean, horren urrun iristea ez zuela espero aitortu digu. Dena den, lehenengo mailan jokatzearekin amets egiten du. "Era honetara, areto futbola ogibide bilakatuko litzateke niretzat. Dena den, Zilarrezko Mailan ere bada kirol honetaz bizi den jokalaririk. Hilabete bukaeran denok jasotzen dugu diru apur bat, nahiz eta honetan ere desberdintasun nabarmenak egon".

"Montxi" areto futbolean burubelarri aritu da txikitatik eta egun profesionalen pareko bizimodua darama, baina honek ez dio udan lagunarteko futbol partidak jokatzea galerazten. Izan ere, bere esanetan, "ez dago desberdintasun handirik bien artean, arau eta espazio kontuak izan ezik. Afizio mailan ere bada alderik".

Udan lagunekin ere jokatzeko aukera duen arren, bestelakoan areto futbolak ez dio aisialdirako denbora gehiegirik uzten. "Astean lautan entrenatzen dugu eta astebururo partidak jokatzen ditugu. Maiz bidaia luzeak egin behar izaten ditut. Aurreko asteburuan, esaterako, Manresan jokatu genuen. Sakrifizio minimo batzuk egin behar ditut: ezin dut lagunekin nahi adina egon, dieta, ordutegia... hasiera batean gogorra egiten zitzaidan, baina dagoeneko ohitu naiz".

Goierri Kirol Elkartearen areto futbol taldea utzi zuenetik bere bizimodua asko aldatu den arren, ez ditu herriko taldean igarotako urteak ahaztu. "Goierrin bizi nuen giroa faltan botatzen dut eta berriz ere herrian jokatu behar banu, gustura egingo nuke". Rubenek Goierri taldea ondo ikusten du, baina herriko areto futbol zaletasunak behera egin duela uste du. "Partidak ikustera joaten den jende kopuruak behera egin du, nahiz eta oraindik ere baden zaletu sutsurik".

Maiatzaren 23an izango da Beitiaren omenezko mendi-ibilaldia



Maiatzaren 23an Iñaki Beitiaren Omenezko VIII. Iraupen Luzeko Mendi-ibilaldia izango da. Aurtengo ibilbide luzeak 53 kilometro pasatxo eta 2.500 metroko desnibela izango ditu eta ibilbide motzak, berriz, 23 kilometro pasatxo izango ditu. Betiko moduan, ibilbide luzeari irteera goizeko 6etan emango zaio eta motzari 8etan. Ibilbide motza Urolako trenbide zaharretik pasako denez, komenigarria da motxilan linterna txiki bat eramatea.

Parte hartzeko asmoa duzuenek, dagoeneko izena emateko aukera duzue: Urretxuko Kultur Etxean, Zumarragako kiroldegian eta Ostadar Mendi Taldearen egoitzan. Izen-emateak, iaz bezala, 7 euro balio du eta, betiko moduan, izena ematen duzuen guztiek kamiseta bat jasoko duzue. Kontuan izan kirol ekitaldi herrikoi hau antolatzeko sekulako lana egiten duten antolatzaileei parte hartzaileek aldez aurretik izena ematea komeni zaiela. Izan ere, hala hobeto kalkula dezakete zenbat edari eta janari behar den eta, gainera, ez dira egunean bertan korrika eta presaka jendearen datuak hartzen aritu behar.

Jonathan Terroni omenaldia

Zumarragako Udalak aurtengo Espainiako jiu jitsu txapelketa irabazi duen Jonathan Terrón herritarra eta Zumarragako jiu jitus taldeko bere taldekideak omendu zituen apirilaren 24an. Terronek 22 urte besterik ez ditu eta, txapelketa irabaztearekin batera, Espainiako selekzioarekin Europako Txapelketara eta Munduko Txapelketara joateko txartelak lortu ditu. Zumarragako jiu jitsu taldeak 90eko hamarkadan sortu zen eta dagoeneko 80 kide ditu. Hauetako batzuek Gipuzkoa, Euskadi zein estatu mailako txapelketetan dominak lortu dituzte.



MURUA
Oinetako konponketa
Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

DOSS ZUMARRAGA
Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Conil (Cádiz)
Hondartza ondoan
pisua alokagai
☎ 943 81 23 65
☎ 680 44 26 68

BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak...
Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA



Alicia Castillo

Jose Luis bikotekideak eta berak Urola Telebista sortu zutenetik, gutxi izango dira gure bi herriotan noizbait Alicia telebistan ikusi ez dutenak. Dena den, Aliciak eta Jose Luisek urte mordoxka daramatzate komunikazio munduan lanean. Hasiera batean, 80ko hamarkadan, Isabel tabernako Finak zuen ekoizpen-etxearentzat iragarkietarako kastinak egiten aritu ziren. Garai hartan jarri zen Alicia lehenengoz kamera aurrean. Starlux-en iragarki baterako hautatu zuten eta Alicia espainiar estatuko telebista guztietan azaldu zen. "Oso gaizki pasa nuen, ez baitzait sekula kamera aurrean aritzea gustatu".

1989an Aliciak eta Jose Luisek Legazpi 10 ekoizpen-etxea sortu zuten. "Garai hartan enpresentzako bideoak egin genituen batez ere, baina ordurako herriko telebista sortzeko asmoa genuen". Hala, 1998an Urola Telebista sortu zuten. "Oso esperientzia polita da, baina gogorra ere bai. Izan ere, sei pertsona beharko genituzke gutxienez, herriko programak egiteko, euskarazko saioak egiteko... Inongo laguntza ekonomikorik ez dugunez, publizitatea da gure diru iturri bakarra".

Alicia kamera aurrean egiten duen lanagatik ezagutzen dugu, baina ekoizpen lanetan ere aritzen da. "UTBn aurkezpen lanetan hasi arte, ekoizpenean lan egin nuen batik bat: kamera laguntzaile lanetan, ekoizpen buru lanetan... Ekoizpen lana asko atsegin dut, baina aurkezteari ere punttua hartu diodala uste dut".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Ileapaintzailea izatea edo kinkiladenda batean lan egitea, jendearekin harremanetan lan egitea.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Bueltatxo bat eman, atseden hartu...

-Bizitzeko toki bat?

Kostaldeko edozein herri edo hiri txiki.

-Zein albiste ematea gustatuko litzaizuke?

Guztiontzat babes ofizialeko etxebizitzak daudela.

-Eman duzun albisterik pozgarriena?

Gauza hunkigarri batzuei buruz hitz egitea tokatu zait, baina ez dut uste albiste on-onik eman dugunik.

-Nor elkarrizketatzea gustatuko litzaizuke?

Edozein pertsona interesgarria iruditzen zait. Askotan, herriko agure bat elkarrizketatu ondoren edozein pertsona ezagun elkarrizketatu ondoren baino gusturago gelditzen zara. Batzuekin negar egitera ere heldu naiz.

-Gustuko telebista aurkezleren bat?

Badira oso onak direnak, baina ez dut inor bereziki gustuko. Gainera, askoren ildo politikoa oso nabaria da.

-Zein da porno filmak botatzen hasi zinetenean entzun behar izan zenuen xelebrekeriarik handiena?

Batzuk errepikatu egin ditugulako kexatu dira, beste batzuek aurkako firma bilketa egin zuten... Emakume batek erantzungailuan mezua utzi zigun, hiru bikotek porno filmak elkarrekin ikusten zituztela esanez eta nesken artekoak jartzen genituen moduan, mutilen artekoak ere jartzeko esanez.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Atzo bertan ilerako plantxa batzuk oparitu nituen eta duela gutxi Jose Luisi eraztun bat oparitu nion.

-Eta jasotakoa?

Azken opariak Erregetan jaso nituen eta asko izan ziren.

-Data bat?

San Martin eguna atsegin dut batez ere.

-Neska eta mutil izen bana?

Alvar eta Martina, amona zenarena.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Diario Vasco.

-Gustuko telebista saioa?

Dokumentalak atsegin ditut batez ere.

-Bereziki gorroto duzuna?

Txutxumutxu saioekin amodio-gorroto harremana dut.

-Liburu bat?

Gabriel García Márquez-en "100 años de soledad".

-Filme bat?

Stanley Kubrick-en "El resplandor".

-Gustuko abestia?

Musika mota guztiak atsegin ditut: jazz, rumba, funky, trikitixa...

-Soinu bat?

Euriarena asko atsegin dut, batez ere ekaitz egunetan.

-Usain bat?

Garbi usaina. Batzuetan garbi usaina somatzen duzu eta ez dakizu zergatik.

-Janari bat?

Nekorak izugarri atsegin ditut.

-Ura ala...

Ura ere bai...



SERINOSKI



serigrafia □ rotulazioa



SERIGRAFIA

inprimaketa edozein eratako euskarrietan:
Aluminioa, metakrilatea, altzairu herdoilgaitza, plastikoa, pvc-a...

EHUN-ESTANPAZIOA

Kamisetak, izerdi jertseak, txalekoak, laneko arropa...

INPRIMAKETA DIGITALA:

Formato txikia eta handia. inprimaketa hainbat materialetan:
Binilo autoitsaskorra, lona, ohiala...

ERROTULAZIOA

Ibilgailuak, erakuslehioak, argi-letreroak, gorputz letrak,
toldoak, direktorioak, ferietarako erakustokiak, seinaleztapena...











MUGITEGI Nº9 Vial B
U R R E T X U
943 72 58 07 - 635 73 75 22
serinoski@euskalnet.net

Urretxu-Zumarraga Ikastola

Garaialde Lizeoa

Milurte berriko hezkuntza eta hornidura



BATXILERGOAK - D EREDUA

Natur eta Osasun Zientziak - Giza eta Gizarte Zientziak

Lau ibilbide: Zientifiko-Teknikoa, Osasun Zientziak, Gizarte Zientziak eta Giza Zientziak

Zereginen Ikasketa Gela (ZIG)







AURREMATRIKULA: maiatzaren 3tik 17ra - MATRIKULA: uztailaren 1etik 7ra

Labeaga kalea, 25 - Urretxu - ☎ 943 72 21 12